



EUSKAL HERRIKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN ETA AZPEITIKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA, AZPEITIKO EGIBAR BASERRIAN DAGOEN "EKOETXEA AZPEITIA" KUDEATZEKO.

CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE LA ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI Y EL AYUNTAMIENTO DE AZPEITIA PARA GESTIONAR EL "EKOETXEA AZPEITIA", SITO EN EL CASERÍO EGIBAR, AZPEITIA.

Vitoria-Gasteizen, 2018ko azaroaren 9an

Vitoria-Gasteiz, a 9 de noviembre de 2018

BILDU DIRA

Batetik, Ignacio María Arriola López jauna, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza sailburua. Lehendakariak, Euskal Autonomi Erkidegoaren izenean, azaroaren 26ko 29/2016 Dekretuaren bidez izendatua. Bere kargua egikaritzuz eta Gobernu Kontseiluak 2018ko ekainaren 5ean emandako baimenaren bidez.

Eta bestetik, Eneko Etxeberria Bereziartua jauna, Azpeitiko Udaleko alkate-udalburua, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta batera datorren gainerako araudiak ematen dizkion eskumenak egikaritzuz, hitzarmen hau izenpetzeko aginduarekin Udalbatzak 2018ko azaroaren 6an onetsitako akordioari jarraiki.

REUNIDOS

De una parte el Don Ignacio María Arriola López, Consejero de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda, en el ejercicio de su cargo en virtud del nombramiento efectuado por Decreto 29/2016, de 26 de noviembre, del Lehendakari, en nombre y representación de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco, de conformidad con la autorización otorgada mediante Acuerdo de Consejo de Gobierno de fecha 5 de junio de 2018.

Y de otra, el Ilmo. Sr. Don Eneko Etxeberria Bereziartua, Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Azpeitia, en virtud de nombramiento de 13 de noviembre de 2015, en el ejercicio de las competencias que tiene atribuidas por la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local y demás normativa concordante encargado de llevar a efecto el acuerdo adoptado por el Órgano Plenario de la Corporación en fecha 6 de noviembre de 2018 para la firma del presente convenio



Bi aldeek ezagutzen diote elkarri lankidetzahitzarmen hau sinatzeko legezko gaitasuna, eta

Ambos intervinientes se reconocen mutuamente capacidad legal suficiente para suscribir el presente Convenio de Colaboración y a tal efecto

HAU ADIERAZI DUTE

EXPONEN

Lehena.- Ingurumenaren gaineko ezagutza sustatzeko, eta ingurumenaren arloko kontzientziazioan lan emankorra egiteko, 1986ko azaroaren 14an, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Politika eta Garraio Sailak eta Azpeitiko Udalak lankidetzahitzarmen bat sinatu zuten. Hori betez, udalerrri hartan ekipamendu bat sortu zen, Egibar baserrian, ingurumen-hezkuntzaren arloko esperientzia berri baten adierazgarri.

Ondoren, esperientzia hori luzatu egin zen hurrengo urteetan, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailaren eta aipatutako Udalaren arteko azken hitzarmena 2015ko apirilaren 30ekoa izan zen.

Bigarrena.- 1998 eta 1999 urteetan Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak erakustokiak erabat aldatu zituen; eta ondoren, 2007an, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak aldatu zituen, Garapen Jasangarriaren EAEko Ingurumen Estrategian ezarritako 5 jomugetara egokituz. Egun, «Ekoetxea Azpeitia» deritzona erreferentziako ekipamendutzat hartzen da Euskal Autonomia Erkidegoan, jasangarritasunerantz jotzeko hezkuntzaren esparruan.

Hirugarrena.- Hitzarmen honek zuzenean betetzen du 2016-2020ko XI. legealdirako Gobernu-Programak ezarritako konpromisoa.

Primero.- Que con el fin de fomentar el conocimiento sobre el medio ambiente, y en orden a realizar una labor fructífera en materia de concienciación ambiental, con fecha 14 de noviembre de 1986, el Departamento de Política Territorial y Transportes del Gobierno Vasco y el Ayuntamiento de Azpeitia suscribieron un Convenio de Cooperación en virtud del cual se creaba en aquella localidad un museo, sito en el caserío Egibar, como exponente de una nueva experiencia en el área de la educación ambiental.

Posteriormente la experiencia fue prorrogada en años sucesivos, siendo el último convenio de fecha 30 de abril de 2015, entre el Departamento de Medio Ambiente y Política Territorial del Gobierno Vasco y el citado Ayuntamiento.

Segundo.- Que tras la transformación integral del espacio expositivo realizada primero por el Departamento de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente durante las anualidades 1998-1999, y posteriormente en 2007 por el Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio adaptándolo a las 5 metas establecidas en la Estrategia Ambiental Vasca de Desarrollo Sostenible, el museo denominado actualmente «Ekoetxea Azpeitia», está considerado como un equipamiento de referencia en el ámbito de la educación hacia la sostenibilidad en la Comunidad Autónoma Vasca.

Tercero.- Este convenio viene a cumplir directamente uno de los compromisos que se recogen en el Programa de Gobierno para la XI



46.konpromezuari buruz ari gara, zeinek "Ingurune naturalaren kalitatea hobetu" izenpean, zehazten du "Ingurumen-hezkuntzako politikak indartu, eta aurrera egin herritarrek ingurumena babesteko eta zaintzeko duten benetako erantzukidetasunean, Ekoetxeen zeregin aktiboaren bidez"

2014ko abenduaren 2ko Gobernu Kontseiluan onartutako EAeko 2020rako IV. Ingurumen Esparru Programan dago jasota Eusko Jaurlaritzak ingurumenari dagokionez hartutako konpromisoa, agiri horretan islatzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-politika. Hala, Eusko Jaurlaritzak gizartearen aurrean hartutako konpromisoen funtsa osatzen duten 15 plan estrategikoetako batean kokatzen da aipatutako programa — konpromiso horiek Euskadi 2020: Giza Garapen Jasangarrian aurrera egiteko txostenean daude jasota—.

Programak gure lurraldeko ingurumenaren egoerari buruzko ikuspegia jasotzen du, eta, besteak beste, lehentasunezko jardun hauek ezartzen ditu:

- Gure kapital naturala babestea, kontserbatzea eta lehengoratztea, ekosistemek eskaintzen dizkiguten zerbitzuak gerizatzeke.
- Ekonomia lehiakor, berritzaile, karbono isurketa txikiko eta baliabideen erabilpenean eraginkor baterantz aurora egitea
- Gure herritarren osasuna eta ongizatea sustatzea, eta babestea.
- Lurraldearen jasangarritasuna areagotzea.
- Politiken koherentzia bermatzea, ingurumen integrazioa areagotuta.
- Euskadiren nazioarteko proiektzioa eta erantzukizuna sustatzea.

Ezarrirako helburuak lortzeko, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza departamentuko aurrekontuen programak, besteak beste, proposatzen ditu hitzarmen

legislatura 2016-2020. Concretamente el número 46, el cual bajo el título de "Mejora de la calidad del medio natural" se marca la iniciativa de: "Reforzar las políticas de Educación Ambiental avanzando en una corresponsabilidad efectiva de la ciudadanía en la protección y conservación del medio ambiente a través del activo papel de las Ekoetxeak."

El Consejo de Gobierno, en sesión celebrada el 2 de diciembre de 2014, aprobó el IV Programa Marco Ambiental del País Vasco 2020, documento en el que se plasma la política ambiental de la Comunidad Autónoma del País Vasco y se recoge el compromiso del Gobierno Vasco con el medio ambiente. Por este motivo este Programa se encuentra entre los 15 planes estratégicos que conforman el núcleo de los compromisos adquiridos por el Gobierno Vasco ante la sociedad reflejados en el Programa "Euskadi 2020: Avanzar en el Desarrollo Humano Sostenible".

El citado programa ofrece una visión de la situación del medio ambiente en nuestro territorio y establece el foco de las prioridades de actuación, entre las que se encuentran:

- Proteger, conservar y restaurar nuestro capital natural, preservando los servicios que nos aportan los ecosistemas
- Progresar hacia una economía competitiva, innovadora, baja en carbono y eficiente en el uso de los recursos
- Promover y proteger la salud y el bienestar de nuestra ciudadanía.
- Incrementar la sostenibilidad del territorio.
- Garantizar la coherencia de las políticas intensificando la integración medioambiental.
- Contribuir a la proyección y a la responsabilidad internacional de Euskadi.

Para la consecución de los objetivos marcados, se plantea en el programa presupuestario del Departamento de Medio

honekin zuzenean erlazionatuta dauden ondorengo akzioak:

- Jasangarritasunerako ingurumen-hezkuntza eta kontzientziazioa bultzatzea euskal gizarte osoan.
- Ingurumen-hobekuntzako jarduerak egiteko udalei, ikastetxeei, lurraldezaintzarako elkarteei eta boluntarioei zuzendutako diru-laguntza programak sustatzea.

Jasangarritasunerako hezkuntzak behin betiko garrantzia du pertsonak behar bezala hezteko garaian. Horrela, ingurumen-arazoei aurre egiteko gai izango dira, erantzun eta konponbide egokia emanaz bai arlo lokalean edo orokorrean, bai gaur egun edo etorkizunean.

Laugarrena.- Udalak ingurumen gaietan duen eskumenari buruz, 7/1985 Legeak, apirilaren 2koa, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituena, bere 28. artikuluan esaten du: *“Berez beste herri-administrazio batzuei badagozkie ere, udalerriek haien jarduera osagarri batzuk egin ditzakete, bereziki, hezkuntzari, kulturari, emakumearen sustapenari, etxebizitzari, osasunari eta ingurumena babesteari buruzkoak”*

Zehazki, Azpeitiak 2025 urtera begirako Plan Estrategikoa du. Udalerriko garapen eredu berri baten oinarriak finkatu eta iraunkortasunaren aldeko apustua sendotzen duen plana hain zuzen. Bertan, hiri antolamendua, ingurumena, garapen ekonomikoa eta justizia soziala modu integralean jorratzen dira. Apustu sendoa egiten da ingurumenaren alde eta Ekoetxearen –orain arte ingurugiro Etxea- garapenaren alde.

Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda, entre otras, las siguientes acciones, directamente relacionadas con la firma de este convenio:

- Potenciar la educación y concienciación para la sostenibilidad en el conjunto de la sociedad vasca.
- Impulso a los programas de subvención para actividades de mejora del medio ambiente destinados tanto a Ayuntamientos como a centros educativos, entidades de custodia del territorio y el voluntariado.

La educación para la sostenibilidad resulta ser una pieza imprescindible a la hora de educar adecuadamente a las personas, de forma que sean capaces de hacer frente a los problemas ambientales y de darles respuestas y soluciones, tanto a nivel local como global, así como en el presente y en el futuro.

Cuarto.- En cuanto a las competencias del ayuntamiento en la materia medio ambiental, el artículo 28 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local, establece que: *“Los Municipios pueden realizar actividades complementarias de las propias de otras Administraciones Públicas y, en particular, las relativas a la educación, la cultura, la promoción de la mujer, la vivienda, la sanidad y la protección del medio ambiente.”*

Concretamente, el ayuntamiento de Azpeitia en su plan estratégico 2025 apuesta, como base para el desarrollo del pueblo, por un plan duradero basado en la organización territorial, medio ambiente, desarrollo económico y la justicia social. Apostando firmemente por el medio ambiente y por el desarrollo de la Ekoetxea -hasta ahora Ingurugiro Etxea-.



Bostgarrena.- Bi administrazioen interesa ikusi eta gero, ingurumenari eta bere hezkuntzaren sustapenari buruzkoak, baliatu zuten Egibar baserria –gaur gaurkoz “Ekoetxea Azpeitia” izenez ezagututakoa- helburu horretarako. Horren baitan, adostu zuten elkarrekin kudeatuko zutela egoitza eta elkar-lanerako baldintzak hitzarmen bidez zehaztuko zituztela.

Seigarrena.- Aldeek beharrezkotzat jotzen dute hasitako esperientziari jarraipena ematea, “Ekoetxea Azpeitia”, jasangarritasunerantz jotzeko hezkuntzako programa berriak garatzea sustatzeko.

Zazpigarrena.- Esperientzia egokiro jarraitu, kontrolatu eta sustatzeko, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak eta Azpeitiko Udalak lankidetzaz hitzarmen hau izenpetu dute, honako klausula hauen arabera:

KLAUSULAK

Lehenengoa.- Xedea.

Lankidetzaz hitzarmen honen xedea da Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren eta Azpeitiko Udalaren arteko lankidetzaren oinarriak ezartzea Azpeitiko Egibar baserrian dagoen “Ekoetxea Azpeitia” kudeatzeko eta horren bidez, egiten diren ingurumen-hezkuntzaren arloko jarduerak egoki garatzeko, 2018., 2019. eta 2020. urteetan. Hori guztia bateragarria izanik **I. Eranskinean** bildutako jarduera edo proiektuekin.

Bigarrena.- Ingurumen, Lurralde Plangintza

Quinto.- Considerando en interés común de las dos administraciones en materia de medio ambiente y con el fin de desarrollar y fomentar la educación ambiental, las administraciones suscribientes del convenio hicieron valer el caserío Egibar, hoy conocido como “Ekoetxea Azpeitia”, para tal fin. Se comprometieron a gestionar en común el espacio mediante la firma de convenios que establecieran las condiciones de cooperación.

Sexto.- Que quienes suscriben estiman necesario proseguir con la experiencia iniciada, fomentando el desarrollo de nuevos programas de educación hacia la sostenibilidad en el “Ekoetxea Azpeitia”.

Séptimo.- Que para el seguimiento adecuado, control y potenciación de la experiencia, el Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda y el Ayuntamiento de Azpeitia, proceden a formalizar el presente Convenio de Colaboración, con arreglo a las siguientes:

CLAÚSULAS

Primera.- Objeto.

Es objeto del presente Convenio de Colaboración establecer las bases de mutua colaboración entre el Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda y el Ayuntamiento de Azpeitia, para gestionar el “Ekoetxea Azpeitia” sito en el caserío Egibar de Azpeitia. Con ello se desea lograr el correcto desarrollo de las actividades que en el área de la educación ambiental tienen como marco el centro “Ekoetxea Azpeitia” durante los años 2018, 2019 y 2020. Todo ello, en consonancia con las actividades o proyectos mencionados en el **Anexo I**

Segunda.- Aportaciones del Departamento



eta Etxebizitza Sailaren ekarpenak.

1.- Lankidetzeta-hitzarmen honen xedea eraginkortasunez gauzatzeko, Eusko Jaurlaritzak, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren bitartez, Egibar baserria jasangarritasunaren arloko heziketa eta prestakuntzako lanak egiteko erabiltzea erabaki du. Baserria Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioarena da, eta «Ekoetxea Azpeitia» ekipamendua dago bertan.

2.- Horretarako, 2018ko ekitaldirako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretako Proiektuan, 5/2017 Legeak, abenduaren 22koa, onartutakoa ondorengo partida aurreikusi du, **18.0.1.05.12.0100.2.238.99.44210.011.P** urteroko ehun eta hogeita hamabost mila eurokoa (135.000 €) hiru urte-saritan banatuta.

2019 eta 2020 urteetarako ere ekarpen ekonomiko bera aurreikusten da.

3.- Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari dagokio, Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzaren bidez, «Ekoetxea Azpeitia» ekipamenduan egiten diren jarduerak gainbegiratzea, horretarako segimendu-batzordean adostutako programazio-esparruei eta jarduteko lerroei jarraiki.

Hirugarrena.- Azpeitiko Udalaren ekarpenak.

1.- Gaur egun «Ekoetxea Azpeitia» hezkuntza-parkea osatzen duten ekipamenduetan eta instalazioetan jasangarritasunerako-hezkuntza sustatzeko ekimenak eta jarduerak garatzea eta egiten jarraitzea.

de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda.

1.- Para la efectiva realización del objeto del presente Convenio de Colaboración, el Gobierno Vasco a través de su Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda, destina el uso del caserío Egibar, propiedad de la Administración Autónoma Vasca y configurado en centro medioambiental «Ekoetxea Azpeitia», al desarrollo de labores en materia de educación y formación para la sostenibilidad.

2.- Para ello, para el ejercicio 2018 el Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda destinará para la realización de las acciones previstas en el presente convenio, un importe anual máximo de 135.000 euros, nominativamente asignada en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para 2018, aprobados por Ley 5/2017, de 22 de diciembre, a cargo de la partida presupuestaria: **18.0.1.05.12.0100.2.238.99.44210.011.P** creada al efecto.

También se prevé esa misma aportación económica para cada uno de los siguientes ejercicios económicos 2019 y 2020.

3.- Corresponderá al Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda a través de la Dirección de Patrimonio Natural y Cambio Climático la supervisión de las actividades que se realicen en el centro «Ekoetxea Azpeitia», dentro de los marcos de programación y líneas de actuación acordadas en la comisión de seguimiento.

Tercera.- Aportaciones del Ayuntamiento de Azpeitia.

1.- Desarrollar y continuar haciendo diversas iniciativas y actuaciones destinadas al fomento de la educación para la sostenibilidad en el conjunto de equipamientos e instalaciones que actualmente conforman el Parque Educativo



“Ekoetxea Azpeitia”.

2.- “Ekoetxea Azpeitia” ekipamenduaren, administrazioaren eta aurrekontuaren kudeaketa: lokalen mantentze-lanak eta garbiketa egitea; beharrezkoak diren langileak kontratatzea, jarduerak garatzeko behar diren materialak eskuratzea eta jarduera bera garatzea. Gastu horiek guztiak eraikina behar bezala mantentzeko ohikoak dira eta helburutzat izango dute bisitarien kontzientziazio maila garatzea ingurumen alorrean. EAEko administrazio orokorraren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak gainbegiratu ditu aipatutako kudeaketa-lanak, Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzaren bitartez.

3.- Hiru hilabete behin memoria bat aurkeztu beharko dute, ospatutako jardueren laburpen bat azaltzeko. Iraileko hilabetea azken hiru hilabetearekin batera aurkeztuko da. Hortaz, epeak honako hauek dira:

- urtarrila - martxo
- apirila - ekaina
- uztaila - abuztua
- iraila - abendua

4.- Urtarrilaren 15erako, azken hiru hilabeteko memoriarekin batera, aurkeztuko du pasa den urteko gastuen likidazioa.

5.- 2018., 2019. eta 2020. ekitaldietarako, 2018eko urtarrilaren 1etik 2020ko abenduaren 31ra bitarteko “Ekoetxea Azpeitia” ekipamenduko ohiko gastuen, funtzionamendugastuen eta pertsonal-gastuen ordaintzeko falta den diru-kantitatea emateko.

2.- Realizar la gestión administrativa y presupuestaria del centro “Ekoetxea Azpeitia”. El mantenimiento y limpieza de los locales; la contratación del personal necesario, la adquisición de materiales necesarios para el desarrollo de las actividades y el desarrollo de las mismas. Todos ellos gastos comunes para el correcto mantenimiento de las instalaciones y lograr el objetivo de fomentar una mayor concienciación ambiental en aquellas personas que lo visiten. Dicha gestión se someterá a la supervisión del Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco, a través de la Dirección de Patrimonio Natural y Cambio Climático.

3.- Aportar trimestralmente una memoria resumiendo las actividades desarrolladas en cada periodo de tiempo. El mes de septiembre se presentará junto con el último trimestre. Por lo tanto los periodos son los siguientes:

- enero-marzo
- abril-junio
- julio-agosto
- septiembre-diciembre

4. Aportar para el 15 de enero, junto con la última memoria trimestral del año, la liquidación de gastos anual del año vencido.

5.- Aportar para los ejercicios 2018, 2019 y 2020, la cuantía económica necesaria para cubrir los gastos corrientes, de funcionamiento y de personal del centro «Ekoetxea Azpeitia», durante el período comprendido entre el 1 de enero de 2018 y el 31 de diciembre de 2020.

Laugarrena.- Epeak eta ordaintzeko moduak.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta

Cuarta.- Plazos y Modos de pago.

La aportación económica del Departamento de



etxebizitza Sailak Ingurugiro Etxea ekipamenduari egiten dion diru-ekarpena Azpeitiko Udalari transferituko zaio, hainbat kopurutan, ondoko aginduen arabera:

2018. urtea:

- 67.500 €, hitzarmena izenpetu ondoren.
- 33.750 €, urriaren 15a baino lehen, urtarril-martxo eta apiril-ekaina hiruhileko memoriak aurkeztu ondoren.
- 33.750 €, 2019ko urtarrilaren 15a baino lehen, 2018. urteko likidazioa aurkeztu ondoren.

2019. urtea:

- 67.500 €, martxoaren 1a baino lehen, aurrerakin modura.
- 33.750 €, urriaren 15a baino lehen, urtarril-martxo eta apiril-ekaina hiruhileko memoriak aurkeztu ondoren.
- 33.750 €, 2020ko urtarrilaren 15a baino lehen, 2019. urteko likidazioa aurkeztu ondoren.

2020. urtea:

- 67.500 €, martxoaren 1a baino lehen, aurrerakin modura.
- 33.750 €, urriaren 15a baino lehen, urtarril-martxo eta apiril-ekaina hiruhileko memoriak aurkeztu ondoren.
- 33.750 €, 2021ko urtarrilaren 15a baino lehen, 2020. urteko likidazioa aurkeztu ondoren.

Bosgarrena.- Hitzarmenaren segimendua.**Segimendu Batzordea.**

1.- Egibar baserrian dagoen "Ekoetxea Azpeitia" ekipamenduak behar bezala funtzionatzen duela zaintzeko, segimendubatorde bat osatuko da. Batzordeko kideak eskubide osoko lau kide izango dira: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza

Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda al centro "Ekoetxea Azpeitia", será transferida al Ayuntamiento de Azpeitia por las siguientes cuantías económicas y de acuerdo a las siguientes prescripciones:

Año 2018:

- 67.500 € tras la firma del convenio.
- 33.750 € antes del 15 de octubre, previa presentación de las memorias trimestrales enero-marzo y abril-junio.
- 33.750 € antes del 15 de enero de 2019, previa presentación de la liquidación del año 2018.

Año 2019:

- 67.500 € antes del 1 de marzo en concepto de anticipo.
- 33.750 € antes del 15 de octubre, previa presentación de las memorias trimestrales enero-marzo, abril-junio.
- 33.750 € antes del 15 de enero de 2020, previa presentación de la liquidación del año 2019.

Año 2020:

- 67.500 € antes del 1 de marzo en concepto de anticipo.
- 33.750 € antes del 15 de octubre, previa presentación de las memorias trimestrales enero-marzo, abril-junio.
- 33.750 € antes del 15 de enero de 2021, previa presentación de la liquidación del año 2020.

Quinta.- Seguimiento del Convenio.**Comisión de Seguimiento.**

1.- Para velar por el buen funcionamiento del centro "Ekoetxea Azpeitia" del Caserío Egibar, se constituirá una Comisión de seguimiento que estará compuesta por cuatro miembros de pleno derecho, dos personas propuestas por el Dirección de Patrimonio Natural y Cambio



Saileko Natura Ondare eta Klima Aldaketako zuzendaritzak proposatutako bi lagun eta Azpeitiko Udalak proposatutako beste bi lagun.

2.- Segimendu-batzordeari dagokio:

- Jarduera-plana eta aurrekontuko aurreikuspen-plana onartzea.
- Aztertu eta ,hala badagokio, onartu Batzorde teknikoak igorritako proposamenak.
- **I. Eranskinean** jada bildutako jarduerak edo proiektu berriak gehitzeko beharra balioetsiko du, jarduera horiek adostutako klausulen menpe geratuko direlarik.

Batzorde teknikoa.

1.- Segimendu-batzordeari aholkularitza emateko organo gisa batzorde teknikoa eratuko da. Batzorde teknikoaren kideak hauek izango dira: EAEko administrazio orokorreko organo eskuduneko Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuko burua eta teknikari bat, Azpeitiko Udalaren ordezkari bat eta "Ekoetxea Azpeitia" ekipamenduko langileen artean aukeratutako kide bat.

2.- Batzorde teknikoak bere funtzionamendua eta antolamendua erabakitzeke autonomia edukiko du.

3.- Batzorde teknikoak segimendu-batzordearen aurrean aurkeztuko ditu egokitzat jotzen dituen proposamenak, bertan aztertzeko eta, hala badagokie, onartzeko. Honako alderdi hauen ingurukoak izango dira proposamenak:

- Urtero segimendu-batzordeak onartu beharko duen urteko jarduera-plana.
- "Ekoetxea Azpeitia" ekipamenduaren antolamendu- eta funtzionamendu-eredua.
- "Ekoetxea Azpeitia" ekipamendua Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorreko Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren ingurumen-hezkuntzako

Climático del Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda de la Administración General del País Vasco y dos personas propuestas por el Ayuntamiento de Azpeitia.

2.- Corresponde a la Comisión de Seguimiento:

- Aprobar el plan de actuación y previsión presupuestaria.
- Analizar y en su caso aprobar las propuestas recibidas desde la Comisión Técnica.
- Valorar la necesidad de incorporar nuevas actividades o proyectos a los ya recogidos en el **Anexo I**, quedando éstas sometidas a las estipulaciones convenidas.

Comisión técnica.

1.- Como órgano asesor de la comisión de seguimiento, se constituirá una comisión técnica compuesta por el/la jefe/a y un/a técnico/a del Servicio de Educación Ambiental del órgano competente de la Administración General del País Vasco, una persona que represente al Ayuntamiento de Azpeitia y una elegida entre el personal del centro "Ekoetxea Azpeitia".

2.- La Comisión Técnica tendrá autonomía propia para regular su funcionamiento y organización.

3.- La Comisión Técnica elevará las propuestas que crea oportunas a la Comisión de Seguimiento para su análisis y, en su caso, posible aprobación. Dichas propuestas deberán referirse:

- Plan anual de actuación que anualmente deberá aprobar la Comisión de Seguimiento.
- Modelo organizativo y funcional del centro "Ekoetxea Azpeitia".
- Coordinación del centro "Ekoetxea Azpeitia" con otros equipamientos de educación ambiental del Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda



beste ekipamendu batzuekin koordinatzea.

- "Ekoetxea Azpeitia" ekipamendua Azpeitiko udalerrian ingurumen-hezkuntzarako dauden beste ekipamendu edo baliabideekin koordinatzea.

- Jarduera-lerroak eta urteko programazioak.

- "Ekoetxea Azpeitia" ekipamenduan gehitu nahi diren irakas-materialak edo azalpen-materialak.

- "Ekoetxea Azpeitia" ekipamenduko langileen prestakuntza-beharrak.

4.- Halaber, batzorde teknikoak jardueren memoria bat aurkeztuko du segimendubatzen aurrean, dagokion ikasturteko irailaren 1etik abuztuaren 31ra bitarteko aldiaren ingurukoa, eta bertan honako alderdi hauek zehaztuko ditu gutxienez:

- Bisita egin duten ikastetxeen zerrenda: zehaztu egingo dira bisitaren eguna, ikasle-kopurua eta irakasle-kopurua, landutako arloak eta gauzatutako jarduera osagarriak.

- Bisita egin duten bestelako taldeen zerrenda, eguna eta pertsona-kopurua zehaztuta.

- ekipamendua zein egunetan egon den irekita; eta horrekin batera, egunean, astean eta hilabetean egondako bisitarien estatistika.

- Bisitei arreta eskaintzeaz gain, ekipamenduaren barruan garatutako jarduerak, hala nola: materialak lantzea, ikastetxeekin eta bestelako taldeekin izaten diren harremanak, jarduera osagarriak diseinatzea, kontzientziazio-kanpainak, bilerak, prestakuntza-jarduerak, eta abar.

- Bisitek ekipamenduaz egindako balorazioaren gaineko txostena.

- Urte, ikasturte eta hiruhileko hasieran zehaztutako helburuak eta lan-plana betetzearen gaineko balorazio propioa.

Memorian biltzen diren datuetan, sexu-aldagaia sistematikoki sartuko da, 4/2005 Legean, otsailaren 18koan, emakumeen eta gizonen

de la Administración General del País Vasco.

- Coordinación del centro "Ekoetxea Azpeitia" con los otros equipamientos o recursos de educación ambiental del municipio de Azpeitia.

- Líneas de actuación y programaciones anuales.

- Materiales didácticos o expositivos que deseen incorporar al centro "Ekoetxea Azpeitia".

- Necesidades formativas del personal del centro medioambiental "Ekoetxea Azpeitia".

4.- Asimismo, dicha Comisión técnica elevará a la Comisión de seguimiento una memoria de actividades relativa al período correspondiente al año escolar comprendido entre el 1 de septiembre y el 31 de agosto del ejercicio que corresponda, que incluya, al menos:

- Relación de centros escolares visitantes, con indicación de fecha, número de alumnas/os y profesores/as, espacios trabajados y actividades complementarias realizadas.

- Relación de otros grupos de visitantes, con indicación de fecha y número de personas.

- Calendario de apertura, con estadística de visitantes por días, semanas y meses.

- Actividades de carácter interno paralelas a la atención de las visitas: elaboración de materiales, comunicación con los centros escolares y otros grupos, diseño de actividades complementarias, campañas de concienciación, reuniones, actividades de formación, etc.

- Informe sobre la valoración que las visitas hacen del equipamiento.

- Valoración propia sobre el cumplimiento de los objetivos y el plan de trabajo marcados al principio del año, del curso y del trimestre.

Todos los datos que se recojan en la memoria, incluirán sistemáticamente la variable de sexo, según lo previsto el artículo 16, de la Ley



arteko Berdintasunerakoan, 16. Artikulua xedatzen duen arabera.

Halaber, dokumentazio, publizitate, irudi edo material orotan, ez da hizkera sexista erabiliko, ezta emakumeen diskriminazioa edo estereotipo sexistak erakusten duen irudirik ere. Halaber, balio hauek sustatu behar dira emakumeen irudiari dagokionez: berdintasuna, partaidetza orekatua, aniztasuna, baterako erantzukizuna eta genero rolen eta identitateen aniztasuna.

Seigarrena.- Hitzarmenaren indarraldia.

Eragina 2018eko urtarrilaren 1etik izango duen arren, izenpetzen den egunean hartuko du indarra hitzarmen honek, eta 2020ko abenduaren 31ra arteko indarraldia izango du. Ezingo da bera luzatu.

Zazpigarrena.- Hitzarmenaren izaera.

Hitzarmen honek izaera administratiboa du, bera ezartzetik etorritako arazoak ebazteko ekar ditzakeen ondorioekin.

Zortzigarrena.- Indargabetzea.

Hitzarmen hau baliogabetu egingo da aldeetako batek betetzen ez badu; halakoetan, beste aldea jakinaren gainean jarri beharko da, idatziz, gutxien dela hilabete lehenago.

Hitzarmen honetan jasotako klausulak edota indarreko legedian jasotzen diren izaera bereko beste batzuk ez betetzea hitzarmena baliogabetzeko arrazoia izango da berori izenpetzen duten aldeentzat.

Nolanahi ere, denuntzia jakinarazten den unean hasita dauden jarduerak bukatzeko konpromisoa hartzen dute bi aldeek.

4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

Asimismo, toda la documentación, publicidad, imagen o materiales deberán emplear un uso no sexista del lenguaje, evitar cualquier imagen discriminatoria de las mujeres o estereotipos sexistas y fomentar una imagen con valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad, y pluralidad de roles e identidades de género.

Sexta.- Vigencia del Convenio.

El presente convenio entrará en vigor el día de su firma, si bien sus efectos se retrotraerán al 1 de enero de 2018 y tendrá vigencia hasta el 31 de diciembre de 2020. No será posible prorrogar el mismo.

Séptima.- Naturaleza del Convenio.

El presente Convenio tiene naturaleza administrativa, con las consecuencias que de ello puedan derivarse para la resolución de las cuestiones surgidas en su aplicación.

Octava.- Resolución.

El incumplimiento del presente Convenio por cualquiera de las partes firmantes será causa de su resolución, previa comunicación escrita a la parte que corresponda con una antelación mínima de un mes.

Son causas de resolución para las partes firmantes del presente convenio, el incumplimiento de las cláusulas contenidas en el mismo y cualesquiera otras que, derivadas de su naturaleza, sean recogidas por la legislación vigente.

En cualquier caso, las partes se comprometen a finalizar el desarrollo de las acciones ya iniciadas en el momento de notificación de la denuncia.

Bederatzigarrena.- Aldaketak

Hitzarmen honetan edozein aldaketa egiteko, horren berri eman beharko zaie Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Nagusiari eta Deustuko Unibertsitateari, ontzat eman dezaten; ondoren, bi erakundeetako organo eskudunek onartu beharko dute aldaketa.

Beren adostasunaren erakusgarri, interesdunek hitzarmenaren hiruna ale sinatu dituzte, goiburuan adierazitako lekuan eta egunean.

**INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA
ETA ETXEBIZITZA SAILBURUA
EL CONSEJERO DE MEDIO AMBIENTE,
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA**

Novena.- Modificaciones

Cualquier modificación del presente convenio deberá comunicarse y contar con el visto bueno previo del Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda y del Ayuntamiento de Azpeitia y ser aprobada por los órganos correspondientes de ambas instituciones.


Lo que, en prueba de conformidad, suscriben por triplicado los interesados en el lugar y fecha indicados en el encabezamiento.

**AZPEITIKO ALKATE-UDALBURUA
EL ALCALDE-PRESIDENTE DEL
AYUNTAMIENTO DE AZPEITIA**

IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ



ENEKO ETXEBERRIA BEREZIARTUA





EAEKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN ETA AZPEITIKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA, EKOETXEA AZPEITIA EKIPAMENDUA KUDEATZEKO.

ERANSKINA: EKOETXEA AZPEITIA EKIPAMENDUAREN LAN-EGITASMOA 2018-2020 URTEETARAKO.

Ekoetxea Azpeitia ekipamenduan egiten den eskaintza Garapen Iraunkorrerako 2002-2020 Ingurumen estrategiarekin lerrokaturik dago. Ondoko taulan, aipatu strategiaren helburuak ditugu eta hauek dira Ekoetxea Azpeitia zentruan eskaintzen dire programen oinarri.

Garapen Iraunkorrerako 2002-2020 Euskal Ingurumen Estrategiaren helburuak	Ekoetxea Azpeitian lantzen diren arloak
<p style="text-align: center;">1</p> <p>Aire, ur eta lurzoru garbiak eta osasungarriak bermatzea</p>	<p>Baliabide naturalak, uraren zikloak, uraren kutsadura, atmosfera- airea, airearen kutsadura, negutegi efektua, gasen isurketa atmosfera- ra. Guk Zer egin dezakegu? Ikustaldi osagarriak: Nuarbeko urtegia, Ibai-Ederreko EUTEa (Edateko Urak Tratatzeke Etxea), eta Lasako HUA (Hondakin Uren Araztegia).</p>
<p style="text-align: center;">2</p> <p>Natur baliabideen eta hondakinen kudeaketa arduratsua</p>	<p>Baliabide naturalak, kontsumo-ohiturak, ekonomia, globalizazioa, energia, aztarna ekologikoa, hondakinak (ohitura egokiak: murriztu, berrerabili eta birziklatu), hondakinak tratatzeko sistemak. Ikustaldi osagarriak: Lapatxeko hondakinen tratamendurako Zentroa, Kontsumo gelak, Garbigunea, Konpostajeko Gunea eta Hiri Hondakin Solidoen Zaborategia.</p>
<p style="text-align: center;">3</p> <p>Natura eta biodibertsitatea babestea</p>	<p>Biodibertsitatea, baliabide naturalak. Bertako produktuak erein eta biltzeko garaiak, espezie autoktonoak, mehatxatuak eta inbaditzaileak; Urola bailararen biodibertsitatea eta paisaia. Izarraitz: Babes Bereziko Eremua. Izarraizko xaguxatar espezieak: Xaguxatar parkea. Ibilbideak Izarraitz mendikatean.</p>
<p style="text-align: center;">4</p> <p>Mugikortasuna eta lurraldearen oreka</p>	<p>Garraioa eta mugikortasuna, hirigintza, eskola, herria, aisialdia. Ingurugiro Etxetik hurbil dagoen Trenaren ekipamendua ikusteko aukera eskaintzen zaie, bai eta herriaren Alde Zaharra ikusteko ere, jatorrizko egitura gordetzen duen hiribildu bakarrenetakoa baita.</p>
<p style="text-align: center;">5</p>	<p>Klima-aldaketa, energia, kontsumo-ohiturak.</p>

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA
ETA ETXEBIZITZA SAIA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA



Azpeitiko Udala

Klima-aldaketaren
eragina mugatzea

Programa osagarria: Igarako errota.

**2018-2020 LAN PROGRAMAREN AURREIKUSPENA****ESKAITZA****1. HEZKUNTZA-KOMUNITATEARI****1.1. Eskolako Agenda 21 (Azpeitiko ikastetxeei zuzendutako Jasangarritasunerako hezkuntza)**

Ikasturteko maiatza-ekainean, eskolarteko foroa eta Udal Audientzia egin ostean, ikastetxeek hurrengo ikasturtean landu beharreko gaia aukeratu ohi dute.

(2017.2018 ikasturterako konkretuki “Klima Aldaketa eta Osasuna” arloa lantzea erabaki zuten.

(EAEko Ingurumen Esparru programaren 2020rako Ingurumen erronka berriein bat datorrena, 2. eta 3. erronkekin zuzenean, Energia-Klima aldaketa eta Osasuna-Ingurumena.

Lan hori honako fase hauetan burutu ohi da Ikastetxeetan:

1. fasea.- Erabakia (ekaina-iraila-urria-azaroa)

ekaina: Eskolak-Udala Foroa egin ondoren, adostu hurrengo ikasturtean landuko den gaia. Irakasle-taldearen eta Ikastetxearen ordezkari-taldea-organoren artean adostu ohi da.

2. fasea.- Motibazioa, Antolamendua (iraila-urria).

Uztaila-urria: Ekoetxea Azpeitia-ko hezitzaileek herri mailako diagnostia eta ekintzen eskaitza diseinatu eta aurkezten dute.

Ikastetxeek ekarpenak egiten dituzte.

3. fasea.- Diagnostia (urria-azaroa).

Kudeaketarako diagnostia.

Currikulum arloko diagnostia.

Parte-hartzearen gaineko diagnostia.

4. fasea.- Ekintza-egitasmoa (azaroa-abendua).

Diseinua: helburuak, adierazleak, ekintzak.

Egitasmoa betetzea: Ekintzak egitea.

5. fasea.- Udalerri mailako diagnostia (urtarriletik ekainera).

Ibilbideak, Jardunaldiak, Erakusketak, Baserrietara bisitak, Baratzazaintza ikastaroak, Ibaiaren garbiketa, e.a.

6. fasea.- Ebaluazioa eta komunikazioa (ekaina-iraila).

martxoa-apirila: Eskolarteko foroak.

apirila-maiatza: Eskolak-Udala Foroan bi aldeek hartutako konpromisoen ebaluazioa.

ekaina: Komunikazioa, Eskolako Agenda 21aren buletina eta web orriaren bidez.

Ekoetxea Azpeitiak programa hau Azpeitiko 4 ikastetxeekin eta Azkoitiko 3 ikastetxeekin darama aurrera, eta 3.400 ikasle/urteko eta 400 irakasle/urteko izaten dira partaide.

Programa hau 2003-2004an sortu zenetik etengabe egin izan da urtero.



1.2. Bestelako ikastetxe edota taldeei zuzendutako eskaintza

Ekoetxea Azpeitia: hezkuntza-eskaintzaren berri ematea.

Ekaina-iraila: EAEko, Nafarroako eta Iparraldeko ikastetxeetara zikloka ikasturte horretarako duen hezkuntza-eskaintza, baita erretiratu, aisialde emakume taldeei ere.

Irailetik -abuztura: eskaintako gaiak landu nahi dituzten taldeek Ekoetxea Azpeitia ekipamenduarekin harremanetan jarriko dira, lanerako egunak gordetzeko. Gainera, ekipamendua eta eskaintza zuzenean ezagutu nahi dutenentzat **Ate Irekiak** eskainiko dira.

Ekoetxea Azpeitian erabiltzen den lan-metodologia.

Eguna zehaztu eta gordetakoan, aukeratu den gaiaren gaineko lan-materialak –bai ikasleentzat, bai irakasleentzat bidaliko zaizkie ikasleekin batera etorriko diren irakasleei.

Ekoetxea Azpeitian, bertan, lan daitezkeen 5 helburuetarako edukiei erantzuteko beharrezko diren lan-materialak prestatu ohi ditu hezitzaile taldeak .

Egindako lanaren ebaluazioa.

Dagokion jarduera egin ondoren, bisita egin duen taldeak ekipamendura bidaliko ditu egin dituzten lanen emaitzak eta balorazioak, aurrez eman zaion balorazio inkesta beteta itzuliz..

1.3. Norberaren kontura egindako bisita

Nor bere kasa datozenei, oro har 5 Helburuen edukia, eta Zentroan ikusgai dauden eduki guztiak agertzen dituen bideo orokorra eskaini ohi zaie. Ikustaldia beren kabuz egiteko aukera dute, edota Zentroko langileen laguntzarekin, hala nahi badute.

Ekipamenduak duen dokumentazio zentroa ere erabiltzeko aukera dute.

Ekoetxea Azpeitia ekipamendutik hurbil dauden beste zentro eta interesguneen gaineko informazioa ere bada, batik bat eskuorrietan, irteera hau aprobetxatuz ikusi nahi badituzte ere.



2. HERRITARREI ZUZENDUTAKO EKIMEN BEREZIAK

2.1. Hileroko ekintza bereziak

Asteburuetakoa publikoa ugaritzeko eta beti ere, 2017an burututako hausnarketa prozesuan ateratako konklusioak jarraituz, hilean behin gutxienez, ekintza berezi bat prestatuko da. Publiko desberdinei zuzendutako ekintzak izango dira, baina 2018an, familiak izango dira lehenetsiak.

2019tik aurrera, antolatutako ekintzak errotu eta ugaritzea aurreikusten da.

2.2. Mundu mailako edota Nazioarteko egunen ospakizuna

Ohi bezala, Ekoetxea Azpeitian, ekimen bereziekin ospatuko dira Mundu Mailako edota Nazioarteko egunak, hala nola, Uraren eguna, martxoan, Ingurumenarena, ekainean, urriak energia eta elikadura, e.a.

2.3. Eskaintza zabaltzea

2018an, Urola-Kosta Eskualdeko ikastetxeetara, zuzeneko bisitak egingo dira, ekipamenduan hezkuntza komunitateari zuzenduta dagoen eskaintzaren berri modu zuzenean azaltzeko. Helburua, ekipamendura etorriko diren ikastetxe kopurua handitzea litzateke.

2019 eta 2020an, beste eskualdetara zabalduko dira aurrez aurreko bisitak..

2.4. Turismoko ekipamenduekin harremanak

Publikoaren bisitak handitzeko helburua eta kontuan hartuta, Azpeitira azken urteotan datorren turista kopurua handitzen doala ikusita, ahalegin berezia egingo da turistak ekipamendura erakartzeko.

Azpeitian hiru turismo bulego daude, eskualdekoa, herrikoa eta jesuitek Loiolan dutena.

Turismo eragileekin elkarlana areagotuko da, publiko horren parte bat geureganatzeko.

Zentzu horretan, harreman zuzenak hasiak dira 2018an, eta elkarlana sendotzea da hurrengo urtetarako helburua.

3. MATERIAL DIDAKTIKOEN SORRERA

3.1. Eskolako Agenda 21 programarekin lotutakoak

3.1.1. Lan fitxak

Urtero, ikastetxeek EA21 esparruan jorrazteko aukeratzen duten gaien arabera zikloetara egokitutako lan fitxak diseinatzen dira.

2017-18 ikasturterako diseinatu direnak honako hauek dira:

LH 1-2: Tipi-tapa oinez eskolara!!!

LH 3-4: Ufff berooo!!!

LAH 5-6: Azpeitiko Berdeguneak



DBH 1-2: Ur edangarrien eboluzioa urtegien azken urteetan

DBH 3-4: Gaurko eta biharko berdeguneak Azpeitian

BATXIL.: Klima aldaketa eta gure osasuna

Ondorengo bi ikasturtetan antzera jokatuko da,

Sortzen den material didaktiko guztiak, Legazpiko Ingurugelako teknikarien oniritzia du.

3.1.2. Buletina

Eskolako Agenda 21 prozesua martxan jarri zenetik 2003-2004 ikasturtean, helburuetako bat izan da herriko familia guztiei agertzea herriko ikastetxeetan prozesu horren baitan egiten ari zen lana eta ahalegina. Horrela, urtero, ekainaren 5aren inguruan (Ingurumenaren Mundu Eguna) Eskolako Agenda 21aren buletina zabaldu ohi da herriko postontzi guztietan.

Buletin horretan jasotzen dira ikastetxe bakoitzean abian jarri diren proiektuak, hartu dituzten konpromisoak eta alkateari egin zaizkion proposamenak. Buletinaren edukia, aurrez, ikastetxe guztien artean adostu ohi da.

Datozen hiru urtetarako ere, helburua mantentzeko asmoa dago eta bere horretan mantenduko da ekainaren 5aren data aipatu den banaketa giteko.

3.1.3. Ekintzen eta jokoan diseinua

2017/18 ikasturtean Klima aldaketa eta Osasuna, gaina LH3 eta LH4 zikloetako ikasleekin lantzeko "Guztion ardura" ekintza diseinatuko da. 2050ean Azpeitiko eta inguruko paisaia hipotetiko batzuk aurkezten zaizkie ikasleei eta aztertuko dute egoera horietara nola eta zergatik iritsi garen eta hori saihesteko hartu beharreko neurriak.

Urtero diseinatzen da horrelako jardueraren bat, beti ere ikastetxeek jorrazeko aukeratu duten gaiari egokituta.

Horrela sortutako materiala aprobetxatzen da ekipamenduaren baliabideak aberasteko eta beste edozein publikori moldatu eta eskaintzeko.

Ondorengo urteetarako antzeko aurreikuspenak eginak daude.

3.2. Erakusketaren artoetan dauden gaien inguruko material didaktikoa

Zentroko erakusketarekin lotutako materiala aurre-jarduera, jarduera eta ondorengo jarduera) urtero sortzen da. Erakusketako gai edo elementuren bat aukeratu, dagoena eguneratu edo berria sortzen da.

4. KOMUNIKAZIOA

4.1. Web orria

www.ingurugiroetxea.org webaren kudeaketa ekipamendutik bertatik egin ohi da. Ekoetxeen sarerako web gune berria sortzen denean, egokitze lanak egin beharko dira.

Blog-aren mantenua ere bertako teknikariek egiten dute.

twitter-a eta facebook-a gehitu behar zaizkio.

4.2. Sare sozialak

Sare sozialen erabilera areagotuko da, facebook, eta twitter e.e. Guztia ekoetxeen sareko kideen eskutik.



4.3. Saretze lana

4.3.1. Turismo

Xaguxatar ibilbidea, diseinua....

Bestelako ekintzak

Triptikoak, kartelak,...

4.3.2. Beste ekoetxeak

4.3.2.1. *koordinazio bilerak*

4.3.2.2. *Esperientziak partekatzea*

4.3.2.3. *Komunean antolatutako ekintzak*

5. LANGILEEN PRESTAKUNTZA

5.1. Eskolako Agenda 21ean landuko den gaiari buruzko formakuntza

5.2. Sare sozialetan areagotzeko formakuntza

5.3. Geotermia instalazioari buruzkoa, instalazioa egin duen TELUR enpresaren eskutik, programa didaktiko berri bat sortu ahal izateko.

6. EKINTZA PLANA BURUTZEA

Irailean, urtero, ikasturteka funtzionatzea erabaki zenetik, **iraila-abuztua Kudeaketa Plana** aurkezten da Batzorde Teknikoaren bileran, eztabaida ostean adostu egiten da Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Saileko teknikariek.

Kudeaketa planean honako hauek dira adosten direnak:

6.1. *Aurreko ikasturteko memoria*

6.2. *Adierazleen kalkulua eta helburuen betetze-maila*

6.3. *Balorazioa eta hurrengo urteko ekintza plana definitu*

7. EKIPAMENDUAREN MANTENUA

7.1. Ohiko mantentze lanak: elektrikariak, arotzak, iturginak,..

7.2. Ekipo informatikoen mantentze lanak

7.3.

8. BESTEAK

8.1. Geotermia instalazioari buruzko informazioa kanpoko erakusleihoan jartzea

8.2. Sarrerako kristalezko ate bikoitza jartzea

8.3. Xagu-xatar ibilbidea diseinatu eta gauzatzea

8.4. Xagu-xatar parkea handitu eta Ekoetxea Azpeitiaren inguruak herritarrentzat berreskuratzea eta bide batez Ekoetxeara iristea erraztea.

8.5. IGARAKo errotaren inguruan aterpetxea sortzea

